



Kristina FERNANDEZ

# 1940, amodio beltz baten kronika

Eneko ARANBURU

**H**asierako soinu finaren ondoren suziriaren danbatekoa entzun zen. Ez ziren festak baina guzti hura festen hasierako ospakizun usaina hartzen ari zen. Ezer ospatzekorik ez dagonean etxera pastelak ekartzen direneko egoera estrainioa nabari zen. Kaleak hutsik. Baita hondartza bera ere. Dena hutsik zegoen, estazioa ezik.

Suzirik utzitako ke aztarnak zerbait idatzi nahirik zebiltzan. Denborak marrazkiak desagerrarazi zituen atmosferaren handitasunean.

Kaioak, goiz hartan, egunero lez, kostalde hura bisitatu zuten. Portutik hondartzara eta hondartzatik portura.

Jendea pilatzen hasi zen Hendaiaiko estazioan. Denok geldi. Zutik. Lerroturik. Berdez jantzitako bi oinezkoak, armak eskutan.

Eguna eguzkitsu argitu zen. Itsasoratu aurreko ehun metroan arrainak pilatu ziren ibaian, eta kaoak bata bestearen atzetik, uretara sartu-irtenean zebiltzan arrantzan.

Jendartean uniformedun gazte bazuk, bi banderatxo banatzen zizkieten bertan bildutakoei. Aurrez lerrotuak

zeudenak, berriro lerrotu; irribarrez ari zirenak, aurpegiak seriotu eta armak indarrez heldu zituzten. Tren bat iritsi zen estaziora. Banderaz josia hau ere. Uniformedun gazteak seinalea egin zuten eta banderatxoak zuenak gogor mugitu zuen alde batetik bestera. Ez zen estazio hartan egunero sartzen ziren tren zaharren modukoa. Hura azken generazioko trena zen. Moderna. Eguzkiaren izpiak distira egiten zuten gortinaz itxitako leihoetan.

Minutu gutxira, beste tren bat kontrako norabidean. Uniformedun gazteak berriro agindu ematearekin batera, jendarteko banderatxoak alde batetik beste mugitu ziren. Bi trenak topatzearekin batera, ateak ireki ziren.

Nasan topatu ziren. Eskua eman zioten elkarri. Batak keinua egin zion begiez eta besteak eskua luzatu zion. Bi irribarre marraztu ziren arratsalde hartako argazkian. Ohe ondoko mesanotxean edukiko zuten zuri-beltzeko erretratua.

Zita aspaldidanik egin zuten. Elkar ezagutzeak sortzen zien irrika asetzeko momentua iritsia zen. Hizkuntza ezberdinean aritu izanagatik ere oso ongi ulertzen zuten elkar. Elkarren helburuak ezagutzen zituzten. Eta baten helburua bestearen desioa zen. Inoiz elkar ikus ez izanak, zirrara handiagotzen

zuen. Desioa sutsuagoa egiten zuten. Eskutitzen bidez hitz eginak ziren. Idatziz adierazi zioten elkarri euren sentimenduak. Aurrez aurre ezagutzen ez baziren ere, elkar besarkatzeko desioa lehertzeaz zuten. Eskuen berotasuna nabaritzeko desioa. Energia transmisio berezi bat nabaritu zuten. Zirrara berezia apika. Bizkarrean, goitik behera eta leunki, esku baten laztana. Bagoira sartzeko gonbit goxoa.

Mahai borobil bat prestatua zuten. Musika lasaia magnetofon. Momentu hartarako aukeratutako melodia. Arrosa koloreko mantelaz jantzi zuten mahaiak. Mahaiak maneatu zituzten biak elkarrekin eserazteko. Elkarrenganako maitasuna adierazteko libre. Elkarri lizunak izatera iritsi ez zitezkeen begiradak eskaini zizkieten. Eskuak elkartu zituzten berriro, sorbaldatik bizkarrean, besarkatzeraino. Laztan eta laztan artean asko hitz egin zuten... Bizitzaz... Elkarren proiektuez... Heriotzaz... Hurkoarekiko maitasunaz...

Bikoteak nahiago zuten bagoi hura berriak amestutako desioen gunea izatea. Bakarrik, itzultzaile eta idazkaririk gabe. Hizkuntza ez baita elkar ulertzeko era bakarra. Izerdiak elkar disolbagarri ziren, musu ematean bi biboteek ezpainen artean eragiten zieten kilima gozagarri organiko jolas hartan.

Urte hartako festetara etor zedin gonbidatu zuten bata bestea. Urte hartan festak, gutxienez, abendura arte luzatuko zirela-eta.

“Bostetan denok elkarrekin, paretara. Gizaseme onen alde eta deabru gorriaren aurka!!” irakur zitekeen karteletan. Kartelak kaleetako iskina guztietan zeuden jarrita. Denok ikus zezaten eta inork deia ahantz ez zezan. Tabernetan ez zen besterik hitz egiten. Merkatuan ere ez zen besterik.

Harresiaren paretetan betirako tautaiak egin zituzten, odolez zikindutako balek. Tiroak paretetako adreiluak hautsi, haragia zeharkatu ondoren. Hura zen asteroko espektakulua.

Elkarren aurrean jarri ziren, mahai bat zutelarik artean eta gainean mapa bat zabal-zabalik. Erabakia zuten. Elkartrukea eginda zegoen. Etorkizunari inork ahantziko ez zuten erretratua eskaini zioten, bata bestearen ondoan, tratuaekin harrotasunez bap.

*Auf Widersehen!! Führer!  
Hasta luego!! Caudillo!*

**Eneko Aranburu** Zuzenbide ikasketak egin eta idatzi. Abokatu jardun eta idatzi. Musikaz gozatu eta idatzi. Irakurri eta idatzi.